

# Sagardoaren bideetan barrena

## Ekainean hasiko dira sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldiak

**X**XV. Sagardo Egunaren aurkezpenean aurreratu bezala, hilabete honetan hasiko dira Sagardo Egunaren Lagunak taldeak antolatu dituen ibilaldi gidatuak. Sagasti eta sagardotegi artean izango dira ibilaldiak, eta Ametza Larrañaga izango da gidari lanak egingo dituena. Txangoak ekainetik abendura bitartean hilabete bakoitzeko hirugarren igandeetan egingo dira, eta sagardogintzaren inguruan hamaika bitxikeria ikasteko aukera egongo da.

Gure arbasorik lehenenek ekin zioten sagardogintzari, eta oraindik gure artean martxan dirauen jarduera bat da, dudarik gabe. Izan ere, duela lau mila urteko geure arbasoek ba omen zuten sagarrondoaren berri. XV. mendetik XVIII. mendera, gainera, sagardoak merkataritzari eta Ameriketako kolonizazioari esker ikaragarritzko loraldia izan zuen. Eta honek ekarri zuen baserrien sorrera.

### Lau orduko ibilaldiak

Ibilaldian, herriko sagasti eta sagardotegiak bisitatuko dira. Arestian aipatu bezala, Ametza Larrañagak egingo ditu gidari-lanak. Sagastietan sagarrondo barietate ezberdinak eta sagarraren jasotzea ikusteko aukera izango da. Sagardotegietan, ordea, sagarraren prentsatze prozesua, upeleratzea eta



AMETZA LARRAÑAGA IZANGO DA IBILALDIEN GIDARIA.

hartzidura. Horretarako lauzpabost orduko martxa egingo da Usurbilen eta Usurbilgo inguruetan barrena.

Frontoi atzetik irtengo dira ibilaldiak, goizeko 9:00etan. Esan bezala, lau edo bost ordukoa izango da eta herriko txoko ezberdinak ezagutzeko aukera egongo da. 200 metroko desnibean eta bide asfaltatuetan egingo da txangoa, beraz oso erraza izango da, guztiok egiteko modukoa. Janaria norberak eraman beharko du, baina sagardoa antolatzaileen kontu joango da.

### Hilabeteko hirugarren igandean

Guztira zazpi martxa izango dira, hilabete bakoitzeko hirugarren igan-

dean. Beti ibilbide bera izango da: Zumetaren muraletik Kalezar aldera, Arratzain, Urdaira, Gorostidi, Sarikolako putzua, Aginaga, Urdaiaga, Santuenea, Zubieta, Kalezar eta Usurbilgo Plaza, besteak beste. Hogeita bat puntu ezberdin ikusiko dira guztira. Aukera paregabea herritarrok geure txokoak ezagutzeko, eta baita kanpoko lagunei gure altxorrak erakusteko.

Lehen irteera ekainaren 18an izango da. Hurrengo datak hauexek dira: uztailak 16, abuztuak 20, irailak 17, urriak 15, azaroak 19 eta abenduak 17.

NEREA KORTA \_\_\_\_\_

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**LATAILLADE**   

**GASA BEROKUNTZA**  
**MANTENIMENDUA ETA**  
**KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

**Ariztitzo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021**

**Zendoia**



Kale Nagusia 35 · 943 37 40 71